

Galdera

Zelan idatzi behar da *aurreebaluazio*, *aurrebaluazio* ala *aurre-ebaluazio*? Badakit hitz-elkartuetan *aurre-* aurrizkia lotuta idatzi behar dela, baina <e> bi batera edo <e> bakarra?

Erantzuna

Ez dago erantzun argirik: beharbada, *aurrebaluazio*.

1/ Euskaltzaindiaren Hiztegian ez dago jasota zuk galdekizun duzun hitza.

Bestalde, Euskaltzaindiaren 25. arauak dio: "lehen osagaia *aurre-*, *azpi-* eta *gain-* duten izen-elkarteak loturik idatzi behar dira". Arauari jarraiturik, Euskaltzaindiaren Hiztegian atzeko hitzari lotuta azaltzen dira *aurre-* [guztiak](#): *aurreakordio*, *aurrebista*, *aurrehititera*, *aurreikusi*... Atzeko hitza <e> batez hasten den kasu bakarra azaltzen da: *aurregun*. Hitz hori eredutzat harturik, *aurrebaluazio* genuke idatzi beharrekoa.

Hala eta guztiz ere, JAGONETen bestelako argibide bat ageri da [azpi- aurrizkiaz](#) ari dela aurrizkia + hitza elkarteetan bi bokal berdin juntatzen diren kasuetarako:

*Euskaltzaindiaren Hiztegi*an [\[EH:azpi-indize\]](#) arautu da, eta hortik ondoriozta liteke, beharbada, *azpi-izenburu* idatzi beharra. Hala ere, hortik ezin da ondorioztatu <i+i> gertatzen direnean beti marratxo idaztekoak direnik. Adibidez, [\[EH:antiinperialista\]](#) ere ageri da (-i-) *Euskaltzaindiaren Hiztegi*an. Beste hiztegi batzuetan ere ageri dira beste hitz batzuk (*antiinflamatorio*, *antiizoztaile*, *erdiireki*, *toxiinfekzio*, *sasiinstrukzio*...), baina Euskaltzaindiak ez du gai hori erabaki.

Azpi- osagaiari gagozkiola, *Euskaltzaindiaren Hiztegi*an bi kasu ageri dira, eta irtenbide ezberdina dute biek: [\[EH:azpidatzi\]](#), batetik (-i- batera ekarria elkarketa); eta [azpi-indize](#), bestetik (marratxoaren bidezko elkarketa). Euskaltzaindiak oraindik arautu gabeko gorabehera da *azpiizenburu/azpizenburu* auziarena.

Hortaz, antza denez, onartzen du Euskaltzaindiak berak salbuespenik halako kasuetan, baina batek daki zer arautu dezakeen gure kasu zehatz honetan!